

# BERRIGARA

90. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1.992, abenduak 24

**DON PEDRO**  
HIL EGIN ZEN  
ATZO  
EGUERDIAN

**UDAL**  
EUSKALTEGIA  
SAN MIGEL  
PATRONATORA  
PASAKO DA  
HILABETE BARRU


## KIROLAK

BERGARARRAK  
NAGUSI  
EUSKADIKO  
IGERILARI  
KONPLETOAREN  
TXAPELKETAN



**GABON GABA  
OSPATUTZEKO...**

kutxa



gipuzkoa  
donostia kutxa



# GABONETAN ERE, KIROLA DENONTZAT

Haur, gazte, heldu eta edadetuentzat, abenduaren 28tik urtarrilaren 5era arte



Udal Kirol Zerbitzua

*Kultur Ekintzaren laguntzarekin*

## HAURRENTZAKO (14 urtera artekoentzat)

- |           |   |                                      |
|-----------|---|--------------------------------------|
| <b>28</b> | GOIZERO, UR JOLASAK IGERILEKUETAN 10.30etatik 18.30etara  | D<br>O<br>H<br>A<br>I<br>N<br>I<br>K |
| <b>29</b> | ARRATSALDERO, DENETARIKO JOLASAK KIROLDEGIAN 15.30etatik 18.30etara   |                                      |
| <b>29</b> | ASTELEHENEAN, 6retan, mendiko diapositibak eta 6.30etan ritmika erakustaldia<br>ASTEARTEAN, 6.30etan, zinea NOVEDADES aretoan<br>ASTEAZKENEAN, 6.30etan, judo erakustaldia eta txokolate-jana |                                      |

## EDADETUENTZAKO

- |           |  |                                      |
|-----------|--|--------------------------------------|
| <b>28</b> | KIROLA ETA JOLASAK Kiroldegan, goizean, 10.00etatik 13.00etara | D<br>O<br>H<br>A<br>I<br>N<br>I<br>K |
|-----------|--|--------------------------------------|

## GAZTE ETA HELDUENTZAKO

- |            |   |
|------------|---|
| <b>31</b>  | UR JOLASAK IGERILEKUAN 10.30etatik 13.00etara   |
| <b>2-5</b> | GABONETAKO BOLEIBOL TXAPELKETA, 14 urtetik gorakonetzat.<br>Izenemateak, Udal Kirol Zerbitzuan, 500 pzta taldeko. |

## DENENTZAKO

- |           |  |   |
|-----------|--|---|
| <b>29</b> | MUNDUKO GAILURRIK ALTUENETAKO DIAPOSITIBA EMANALDIA<br>(EVEREST, CHO OYU...) RAMON PORTILLAREN eskutik.<br>Arratsaldeko 7.30etan Zabalotegiko aretoan. Sarrera dohainik. | S<br>A<br>R<br>R<br>E<br>R<br>A<br><br>D<br>O<br>H<br>A<br>I<br>N<br>I<br>K |
|-----------|--|---|



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97  
Babeslea: Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurilaritza

**Erredakzioa**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezibar

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Eburne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:** Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaian

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel  
Angel Elkoroberezibar, J. M.  
Elxpuru, J. Oregi, A. Urzelai,  
Maripi Laskurain, N. Alzela,  
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.  
Lizarralde, Monika Belastegi, M.  
Elkoroberezibar, Aitziber  
Aretxaga, Ainhoa Bikuna eta I.  
Sorondo.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A.  
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.  
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,  
Kifu eta Pol-Pol Mendizale  
Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati)  
**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esa-  
nen eta eritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek**  
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

## PROTAGONISTAK

### DON PEDRO

Don Pedro Garitano Santa Marinako abadea eta herriko pertsonaia maitatuenetarikoa Arrasateko Ospitalean hil zen atzo asteazkena, ostiral arratsaldean Zubietako zubiko eskilaretan jausi eta buru-hezurra hautsi ondoren.



Asteazken goizean bere familiarekin kontaktuan jarririk, *"Don Pedro oso egoera larrian"* zegoela esan ziguten, eta handik gutxira, eguerdian, bere heriotzaren berri izan genuen. Don Pedrok 93 urte zituen. Berriz ez dugu urtebetetzeetan bere te-

lefono-deirik izango. Hileta elizkizunak ostegunean 5etan izango dira Santa Marinan.

Aste honetan hil da, halaber, Don Benito Aperribai San Pedroko abadea ere. Gure samin-agurrik sentikorrrena bien familei.

### Atzo hil zen Arrasaten ostiralean izandako kolpearen ondorioz

## ITURRI ONETIK

### Loteria, nahi baino gutxiago

Aztiak ez du asmatu ez eta Bergarara ez da espero zen "gordua" etorri. Asteartean izandako zozketaren ondorioz nahi baino diru gutxiago etorri da gure herrira eta sari txikiekin konformatu behar izan dira jokuan egin dutenak. Horien artean badira ere hain txikiak ez diren zenbait, tartean Bergarako dendari bati tokatu zaion 37 milioi pta.koa. Berarekin kontaktoan jartzeko ahaleginak egin arren ezinezkoa izan zaigu. Zelebratzen izango da honezkeror!!

## ESAN DUTE

"Cho Oyuko gailurra zapaltzean, lehenbizi, begiak atzean diren Everest eta Lotse mendietara joaten zaizkizu. Oso tontor zapala da Cho Oyurena eta gailurrean zaudela ematen badu ere, asko ibili beharra daukazu bertara iritsi arte. Everest eta Lotse ikusten dituzunean orduan konturatzen zara punturik altuenean zaudela".

### AMAIA ARANZABAL Mendizalea EUSKADI IRRATIA

"[IHESari buruz] Kondoiairen aldeko kanpainak beharrezkoak dira, baina honekin batera bada beste bat ez dakit zergatik oso ozenki egiten ez dena: analisiaren aldekoa".

### JUAN MARTIN ELEXPURU Idazlea EUSKALDUNON EGUNKARIA

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

# ZUBIAURRE

**AROSZEGIA**

- Sarrerako eta barruko ateak •
- Horma armairuak • Tarimak •
- Egurrezko eta PVCzko leihoak •
- Era guztietako arotz lanak •

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

# ELEKTRO

ARENAZA C.B.

**Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.**

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



**FALSA SEDUCCION**

Larunbata: 17.00, 19.30 eta  
22.30.

Igandea: 17.00., 19.30 eta  
22.15.

Astelehena: 19.30.

**TOMATES VERDES  
FRITOS**

Ostirala: 17.00, 19.30 eta  
22.15.

**Zinea**

▼▼ **Bikote batek** (Kurt Russel eta Madeleine Stowe) lapur baten bisita izango du baina poliziari deitzerakoan gauzak oraindik zatartu egingo dira. Jonathan Carrek zuzendutako filme hau amesgaizto bihurtuko da protagonistentzat eta ikusleek ere berekin sufritu beharko dute.

▼▼ **Kathy Batesek** (*Misery*) nahiko ezkontz bizitza aspergarria darama baina dena guztiz aldatuko da ospitale batetan Jessica Tandy (*Paseando a Miss Daisy*) ezagutzen duenean. Han kontatuko dion istorioak sekulako garrantzia izango du bere bizitzan. Donostiako karteleran denbora gehien mantendu den filma.

**Erakusketak**

▼ **29 margolari.** Ortonovora eramandako koadroak ikusteko aukera izango da urtarrilaren 3ra arte Kultur Etxean.

▼ **Rufina Igarzabal** gasteiz-tarraren oleo erakusketa izango da ikusgai Gabonetan Nahikarin.

**Farmaziak**▼ **Larunbata 26:**

Puy/Corcuera (Arrasaten, gauez).

▼ **Igandea 27:**

Puy/Irizar.

▼ **Astelehena 28:**

Guallar/Amezua.

▼ **Asteartea 29:**

Estella/Ruiz.

▼ **Asteazkena 30:**

Mozos/Morales.

▼ **Osteguna 31:**

Camacho/Azkoaga.

**Ogia**

▼ **Igandea 27:** Konde.

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**MEKOLALDE TABERNA**

abenduak 25 eta urtarrilak 1 ITXITA

Gabon zorientzuak guztioi

Mekolalde auzoa ☎ 76 50 18

**ETXAGI**

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**LONBIDE**

OINETAKOAK

BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA






## Ikuskizunak

▼ **Ramon Portilla** mendiza-leak Everest, Nanga Parbat, K-2, edota Cho Oyuren diapositiba emanaldia emango du asteartean, hilak 29, Zabalotegipeko aretoan 19.30etan.

▼ **Edadetuentzako** kirola eta jolasak izango dira astelehenean, hilak 28, goizeko 10etan Labegaraietako Kiroldegian.




*Pelota partiduak ostiral eta asteartean.*

## Aukeran

▼▼ **Herriko 29 margolarik** Ortonovora eramán zituzten hainbat koadro ikusgai izango dira Kultur Etxean urtarrilaren 3ra arte Kultur Etxean. Bestek beste Abdon Juaristi, Jon Andoni Urisabel, Riki Azkargorta, Manu Miniategi, Miguel Okina, Anton Arrillaga, Juan Balentziaga edota Josu Okinaren lanak ikus daitezke.



**5**



### PROFESIONALAK

- Urzainki Astarloaren aurka.
- Etxaniz eta Aldazabal II.a Ansotegi eta Martirikorenaren aurka.
- Kalonge Badiola I.aren aurka.

Ostiralean,  
16.30etan Udal  
Pilotalekuan.

### PROFESIONALAK

- Lujanbio-Alberdi III.a/Gofi eta Andueza V.a.
- Laduche-Aldazabal II.a/Ansotegi-Martirikorenaren aurka.
- Gabilondo-Astarloa/Badiola-Garaita.

Asteartean,  
16.30etan Udal  
Pilotalekuan.

## Bouzas-Villar

MARGOAK - PAPERETZATUAK - MOKETAK

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!!

Zurradero 8, 1. A  
Tfnoa: 76 06 12 BERGARA

Iparragirre 17, 5. URRETXU  
Tfnoa eta faxa: 72 30 91

## MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien  
karrozeria eta mekanika

Leizeaga, 1 (San Lorentzo pol / Ind)  
☎ 76 35 09 BERGARA



**OLEOAK**  
**RUFINA IGARZABAL**  
erakusketak



**NAHIKARI**

Mahasterreka, 20 ☎ 76 57 71



### Burdiñateko zuhaitzak

Honako idazki honen bitartez, Bergarako Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Batzordea zoriondu nahi dugu, Batzarreko teknikariaren baimenik gabe Burdiñaten zegoen zuhaitz baten aurka eraso egiteagatik "Construcciones Mauricio Arregi"ri ezarri dion abisu eta zigorreragatik.

Burdiñateko obra berriaren inguruan, ereinotz (*Laurus nobilis*) eder batzuk zeuden, zuten itxura ederragatik nabarmenak zirelarik. Jakinean geunden aipatutako zuhaitzak botatzeko asmorik ez zegoela eta obra hasieran errespetatuak izan ziren. Aurrerago apurka-apurka zuhaitzak botatzen zihardutela ohartuz, ekintza hau salatu genuen.

Hiri Ondasun Kulturala osatzen duen atal hau infrabalaratua izatea eta betirako galtzea tamalgarria da.

Ezaguna da praktika hau gure udalerrietan oso zabaldua dagoela, gure maila kulturalaren adierazgarri tristea. Hala ere, eraikitzaile, baratzain eta gainontzeko herritarrei traba egiten dieten zuhaitz, seto eta zuhaixkak inolako kontrolik gabe kendu eta erretzeko aitzakia ez litzateke izan behar. Bota diren zuhaitzak betirako galdu dira, aldaezinak dira.

Gure ustetan ondasun hauek mantendu beharrekoak dira, suntsitu eta lapurtuak ez daitezten izan, dagokion

neurriak hartuz. Aldi berean, toki zehatz batetik zuhaitz bat kentzea nahitaezkoa dela erabakitzean, alea beste leku batetara itzultzea eta erasoak gogor zigortzea izan beharko litzateke jarraitu beharreko politika.

Udalak 1990. urtean gai honi buruz onartutako araudia publikoki lehen aldiz honako kasu honetan aplikatu da, erasoaren erantzuleari abisua eta zigorra ezarri. Gogoratu beharrekoa da halaber araudi hau orainarte aplikatu ez delako oso ezaguna bilakatu dela (Nahiz eta zigortu beharreko ekintzak ugari izan!).

Aipatutako kasuan, erantzuleei toki horretan espezie bereko zuhaitzak eta Errekaldeko parkean 5 zuhaitz (Hagina, Astigarra eta Ekarmetzak beraien artean) landatzea agintzen zaie. Gure ustetan, ezarritako "zigorra" aski biguna eta sinbolikoa izanik ere, itxaropena eta bira garrantzitsua suposatzen du. Sentsibilitate berri baten atarian egotea espero dugu. Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Batzordea zoriondu dezagun, zoriondu gaitezen denok.

### Mendia Bizirik

### Pakezaletasuna eta indarkeria

Nik erabakitzen badut soldadutzara ez joatea, jarrera guztiz baketsua izango da. Baina egun batean etor daiteke polizia nire etxera, auzitegira edo kartzelara eramateko, hau dana ondo zainduta pistolak, metrailetak eta behar ez den armamentu guztiarekin. Indarkeria honen aurrean indarra erabiliko banu, "terrorista" bat izango nintzateke demokrata guztientzako.

Gelditzen zaidan aukera bakarra Estatuko indarkeriari aurre egiteko, nire buruarekin konsekuente izatea da eta nik garbi daukat ez naizela espainola eta ejerzitoak aberatsen txakurrak besterik ez dira.

Hala eta guztiz, beti dago beste aukera bat, euren indarkeria onartzea eta soldadutzara joatea, denok daukagu aitzakia bat erabaki hau hartzeko (Iana, senideak...), "aitzakia, ipurdia bezala, denok daukagu bat eskura".

Tx.

Gabonak direla, urtarrilaren 17ra arte ez duzue Berrigararen hurrengo alea etxean izango. Bitartean, ZORIONAK eta URTE BERRI ON!!

### Tiira ba!



### Josu Okino



# Euskaltegia Barrenkaleko lokala utzi eta San Migel Patronatora pasako da aurki

Astelehenean Kultur Etxean egindako Plenoan Euskaltegiko lokalarekin gertatutakoa eztabaidatu zen. Erregu eta galdere-tara iristean, Juan Mari Garitano EAko zinegotziak eta Jose Luis Elkoro HBkoak Euskaltegiak seguritate baldintzak betetzen zituen galdetu zuten. Victoriano Gallastegik neurri horiek momentuan ez direla betetzen eta Euskaltegia aurki San Migel Patronatoko lokalera pasako dela aurreratu zuen. Pleno amaieran Anthony J. Stütter lokalaren lehengo jabeak Euskaltegiarekin gertatutakoa eta Udalari lokalaren erabilpen desegokia egiteagatik jarri dion denuntziaren berri eman nahi izan zuen baina alkateak hitza ezeztatu zion, "hortarako beste prozedimendu batzuk daudela" adieraziz eta Plenoa bukatutzat emanez.

Victoriano Gallastegik Plenoan jakitera eman zuenez, "lokala erosi behar genuenean konturatu ginen Kutxak ez zigula atzeko sarrera saltzen eta atzera egin genuen. Ora-in Anthony eta Kutxaren arteko arazoa da hori".

Juan Mari Garitanok orain zabaldu berri diren txoznak eta tabernen



Alkatetzak txoznak ixteko erabakia haru zuen asteartean.

ordutegiari buruzko informazioa ere eskatu zion Victoriano Gallastegiri. Alkatetzak txoznak ixteko erabakia hartu zuen asteartean "ez baitute inolako neurririk betetzen eta ixtea beti gogorrala" aitortuz.

## Hainbat lanpostu

Aurretik, Plenoan, Elosun egin beharreko parkerako 27 milio pta.ko aurrekontua, Euskaltegirako 4 milioi pta.ko mailegua egitea eta Osintxun baxu bat erosteko proposamenak onartu

ziren. Alvaro Esparzak ere mankomunitate mailan egin nahi den minusbalituentzako garraio zerbitzua eratzeko akordioa eman zuen ezagutzera; 6 milioi pta.ko subentzioa egongo da eta Udalak 5 milioi eta ASPACEk 600.000 pta. gehitu beharko dituzte. Era berean, Santa Marinako merkatuko erregelamenduari hasierako onarpena eman zioten alderdi guztiek eta obretako brigadarako peoi postua, uretako brigadarako beste bat eta idazkaritzako administrari laguntzai-

learen postua betetzeko oinarrien onarpena egin zen EAJ, EE eta PSOEn aldeko botua emanez eta HBren abstentzioa eta EAren kontrako botoekin. Juan Mari Garitanok, boto esplikazioan, "Eak bere sasotian organigrama ez zuela onartu" gogoratu zuen.

Amaitzeko esan Anaje Narbaizaren ordez Felix Askasibarrek hartu zuen zinegotzia kargua astelehenean "legeak beharturik bai" formulari jarraituz zin eginez.

**JOSE  
LUIS**  
eta  
**MIKEL**  
URTEAGA, 6

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

**SANTOS** IRRATI-TB  
ELEKTRAGAILUAK - TB  
BIDEOA - BIDEO KAMARAK - SOINUA  
GABON GARAIAK OFERTA BIKAINAK PREZIORIK  
INTERESGARRIENETAN

Mahasterreka, 2 ☎ 76 26 10 BERGARA



□ **Bosniarren alde**

Igandean, hilak 27, Aretxabaletako Udalbatzak eta U.D.A.ko neska taldeak 6 hilabetez San Viatorreko Harrera Etxean izango diren bosniarren aldeko futbol partidua jokatu dute. Partidua eguerdiko 12etan jokatu da Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. sarrerak 400 pta.tan jarriko dira salgai eta kalitatezko futbola gogoko ez dutenek "0 Fila" 250 pta.tan erosteko aukera izango dute.

□ **Jubilatuak**

Datorren asteartean, hilak 29, Mus Txapelketa azkarra jokatu da Jubilatuetan arratsaldeko 3 t'erdietan. Era berean, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean elkarte itxita egongo dela jakin arazten da. Abenduaren 31n, berriz, arratsaldeko 7etan itxiko da.



**Taun-Taun garaile**

Taun-Taun Txotxongilo talde bergararrak Azpeitiako X. Antzerki Topaketen lehen saria (300.000 pta.) eskuratu du Taun-Taun Show lanari esker. Epaimahaiak *"antzerki adierazbidearen eta txotxongilo munduaren arteko sintesia"* goraipatu zuen. Taun-Tauneko kideek aldiz, beren sorpresa azaldu zuten, *"txotxongilo talde bakarra izanda ez genuelako saririk espero"*.

Astearte arratsaldean bertan Taun-Taunek insumisioaren aldeko lan bat eskeini zuen Bergarako Gaztetxean eta hila-

ren 27 eta 30ean Logroño eta Gasteizeko Txotxongilo Jaialdietan parte hartuko dute saritutako Taun-Taun Show lanarekin.

Pasa den ostiralean, berriz, *Berrigarako* erredakzioan izan genituen, Eduardo Di Mauro Venezuelako Txotxongiloen Elkarteko ordezkaria eta Luis Abajo Kultur zinegotziarekin. Di Maurok bergarrek Hegoamerikan udan izandako arrakastaren berri eman eta aurten Taun-Taunekoek Arjentinan beharbada jiratxo bat burutuko dutela aurreratu zigun.

□ **Laguntza irteera**

Pol-Pol Mendizale Taldeko Sokorrismo Taldeak Borondate Oneko XXIV. kanpaina iragarri du Eguberri egunerako. Ohizkoa denez, Bergara-Durango ibilbidea bi norabidetan burutuko da, arazoren bat izango luketen gidariei laguntza eman eta bere familiekin egun seinatu hori igarotzeko arazorik izan ez dezaten. Interesatuak Pol-Polera jo dezakete.

□ **Argazkia**

Agustin Gurrutxaga eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki taldeko kideak lehen eta 2. postuan geratu dira *Argazki Bidez* izeneko zirkuituan eta Aretxabaletako Mendi Diapositiba Lehiaketan. Iruñeko Mendiko Argazki Lehiaketan Benito izan da Agustinen aurretik koloretan (lehen eta 2. saria) eta zuribeltzean Dani Santosek irabazi du.

*Biltoki*

**BETI ZURE ZERBITZURA!**



**key**

SUKALDE ETA BAINURAKO  
ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE  
HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G  
☎ 76 34 00

**PHILIPS**



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN  
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE  
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO  
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6  
☎ 76 25 96

**dekorazioa**

GAZTE ESTILOKO  
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,  
LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIORAKO  
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2  
☎ 76 43 51





## LABen prentsaurrea

Ostegunean LAB sindikatuak Deba Garaiko egungo egoera industriala aztertu zuen prentsaurrean 1.982 urteko datuekin konparatuz. LABen esanetan, "Gipuzkoako Merkatal Ganbaroko Katalogoko datuen arabera, gure eskualdeko egoera gatazkatsua da eta nahiz eta 1.982 urtearekiko lantegi gehiago izan eta lanpostu berriak sortu diren, 2.117 lanpostu gutxiago daude orain eta horrez gain 10 urteotan 1.352 langile zituzten 43 enpresa itxi dira".

LABek azpimarratu zuenez, "Deba Garaian

*enplegu erregulaziorako espedienteak ugarituaz doaz eta lantegi batzuen etorkizunerako planetan 456 lanpostuen murrizketa planteiatuta dago".*

Sindikatuaren ikuspuntutik, "industriaren desagerpenak marko juridiko politikoa aldatzea eskatzen du eta Euskal Gobernuak PSOEn eskutik jarraitzen badu, eta EAJk badu zeresanik honetan, guk ez diogu irtenbiderik ikusten arazo honi". Azkenik LABek dei egin zien alderdi politiko, sindikatu, herritarrei eta langile guztiei arazo honi aurre egiteko.

# Txinpartak

✓ **Senideak Elkarteak** ostegunean, hilak 24, arratsaldeko 7 t'erdietan egingo den enkarteladan parte hartzera dei egiten du.

✓ **Euskara Zerbitzuak** konbokatutako logotipo lehiaketarako lanak entregatzeko epea urtarilaren 15ean amaituko da.

✓ **Komiki Lehiaketaren** sariak banatuko dira ostiralean, hilak 25, eguerdiko 12 t'erdietan Kultur Etxean. Guztira 50 lan inguru aurkeztu dira.

✓ **Juan Jose Altunaren** eskolako margolarien lanak daude ikusgai Aretxabaletako Kultur Etxean urtarilaren 10era arte.

✓ **Ping-Pong txapelketa** jokatu da Igerilekuetako tabernan larunbatean eta igandean, hilak 26 eta 27, arratsaldeko 4retan.

✓ **Anjel Bideluze** Euskadiko txapeldunak larunbatean Jaizkibeletako Moto Igoera irabazi zuen Aitor Azulegi eta Alex Elizbururen aurretik.

✓ **Markos Larrañaga Alustizaren** oroimenezko meza izango da igandean, hilak 27, goizeko 11etan San Pedron. Bergarako Orfeoia ere parte hartuko du.


## BERGARA

### Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa:  
76 12 31

Zubieta 46  
Bergara



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



# ALKARTASUNA ELKARTEA

## Elorregiko elkarteak

Alkartasuna elkartearen lehendakari den Felix Altunak azaldu dizkigu oraingo honetan elkartearen gorabeherak.

### Sorrera

Elorregi auzoko zubi ondoan taberna bat omen zegoen. Parrokia sortu aurreko ermitan mezetan egon ondoren, elkar eza-gutuaz jendea tabernan batzen zen jokoan egiteko. Baina taberna hau 67an itxi zutenean auzoa ezer gabe gelditu eta zer-bait sortzeko beharra ikusi zuten auzotarrek. Honela, lehen taberna zegoen lekuan 1968.eko urtarrilaren 26an hasi zen Alkartasuna elkarteak. Elkartearen izenak ere badu bere zergatia. Orain dela urte pilatxo bat behiak eta aseguratzeko Alkartasuna

izeneko ermandade bat egon zen. Elkarteak sortu zenean izen hau ematea erabaki zuten.

Sortu zeneko bazkideetatik gehienek jarraitzen dute elkarteak. Gaur egun 65 bazkide dira Alkartasuna elkarteak. Ez omen dago sartzeko listarik, auzoko jende dena bazkide baita. Bazkide guzti hauen batzbesteko adina 30 urtekoa da.

Emakumeak ez dira bazkide bezala onartzen, baina bazkideen emazteek giltza dute eta sarrera



Felix Altuna auzo-alkatea, Victoriano Gallastegirekin

librea dute beste bazkideek bezala.

### Diruak

Joan zen urterarte baziren kuotarik ordaintzen ez zuten jubilatuak, baina gero eta gehiago zirenez, jubilatuak kuota-aren erdia ordaintzea era-

baki zen.

Elkarte honek joan zen urtean 2.000.000ko kaja batu zuen eta faltak, %25ekoak dira batzbestek.

Elkartearen eguna auzoko jaietan ospatzen dute, apirilak 28, San Prudentzio egunean hain zuten. Auzoko jaietan elkarteak bere eginbeharrak izaten ditu: jubilatu-aren eguna eta auzoko afari edo bazkaria gertatzea bezalakoak. Ba omen daude gainera jaietan urtero bakailoa gertatzen duten auzoko lau emakume.

*Ainboa Lete*

## FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1.968ko urtarrilaren 26an.

**BAZKIDEAK:** 65.

**HELBIDEA:** Elorregi auzoa.

**PRESIDENTEA:** Felix Altuna.

**ELKARTEAREN EGUNA:** Apirilak 28.

**URTEKO KUOTA:** 10.000 pza.

## BERGARESA MARMOLERIA

**PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27

Faxa: 76 04 77 BERGARA

## PEÑALBA

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49

BERGARA

Loteria  
Oparigaiak

## JOSEFINA

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.

• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

## ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA



# **GABONAK**

ale berezia


**2-3:**  
**Gabonetako**  
**kontzertuaren**  
**kronika**

**5:**  
**Eskaparate**  
**Lehiaketako**  
**irabazleak**

**8-9:**  
**Gabonak:**  
**gehiagikeria?**

**10-11:**  
**Gabonak**  
**nola eta**  
**norekin?**

**13:**  
**Kirol**  
**Sariketako**  
**irabazleak**



BENIRO CANTERO

**G** *abonak*



# Gabonetako Kontzertua

**San Pedro jendez gainezka, Udazken Kulturalaren amaiera jailadian**



*Alfredo Gonzalez, Jesus Berroia, Cristina Larrañaga eta Mariaje Ugalde, erabat pozik kontzertu amaieran.*

**Zure  
konfidantzako  
denda**



**Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27**

**ARRASATE**



**Urtero moduan, aurtengo Gabonetako Kontzertua ere, oso arrakastatsua gertatu da. Herritarrek eta kanporik etorritako hainbat musika zaletuk, txiki utzi zuten larunbatean San Pedro parrokia eta bi ordu luzetako saio bikainarekin disfrutatzeke aukera izan zuten. Jarraian azaltzen ditugu kontzertuan izan ziren bergarar batzuen eritziak.**




*Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orfeoia eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa, guztiak bat eginik eta Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batutapean, Haendel-en Mesias interpretatzen.*



**Marije Unamuno**  
28 urte

"Askok gustatu zitzaidan, eta aurtengoa San Pedron egin denez, hobeto irten zela uste dut, askoz ere hobe entzuten baitzen. Orduetegiarekin, berriz, ez nator bat: afa-lostean hobe".



**Juan Idigoras**  
63 urte


"Ondo irten zela uste dut, jendearekin gustatu zitzaion. San Pedron egin beharko litzateke beti, horrelako kontzertuetarako frontoia baino ego-kiagoa da eta. 7ak aldera hasi beharko zen...".



**Edurne Mendikute**  
47 urte

"Oso polita izan zen, pixkat luze xamarra beharbada. San Pedron egitearen aldekoa naiz, frontoia hotzagoa da.

Orduetgia ondo dagoela uste dut".



**Fernando Lazkano**  
66 urte

"Oso ederra, bikaina, asko gustatu zitzaidan. Guztiak primeran aritu ziren.

Gehien gustatu zitzaidana, bi koruak eta orkestak elkarrekin kantatu zutenean".

**Jabier LAZPIUR**  
HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA

**Garnish**  
Bitxitegia

% 15eko beherapenak

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

**ZAPELAITZ**

Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA



# GURPIL GAINEKO ERAGINKORTASUNA


Guipuzcoanan, gure lehen helburua zerbitzu oso eta eraginkorra eskaintzea da.



Horretarako garraio sare logistiko arin eta dinamikoa daukagu enpresen eskuetan.



Antolakuntza osoa, bere 57 ordekaritzen bidez estatu mailako hedapena duena.



Egunez egun enpresa lanetan agintzen diren beharrei erantzuteko.



Gure eraginkortasuna gurpil gainean ibil dadin.

**EGAÑABERRI**  
E. M.

SAN JUAN AUZOA, Z/G  
I.F.K: B - 20-395612  
20570 BERGARA



**GUIPUZCOANA**  
Paketean garraio eta banaketa



# Alga usaindegia, II. Eskaparate Lehiaketako irabazlea

Alga Usaindegiak jaso du gaur goizean Kultur Zerbitzuak antolatutako II. Eskaparate lehiaketako lehen saria (100.000 pta. eta Udaletxeko plaka oroigarria). Bigarren saria (50.000) Errotuloak M2 Errotuloakentzat izan da eta hirugarrena (25.000 pta.) Garnish bitxitegiak eskuratu du.

Horrez gain, Guisasola ferreteriak, Larrañaga gozotegiak eta Subijai jantzidendak (iazko irabazlea) epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan dute. Aurtengo lehiaketaren emaitzak bistan dira: denda eta komertzio ezberdinak guztiz dotoretu zaizkigu eta gauza benetan politik ikusteko aukera dago herriko kaleetan.

200.000 pta.ko aurrekontuarekin, partaidetza berdintsu mantendu da joan den urtearekin konparatuz. Luis Abajo kultur zinegotziaren esanetan, "iaz 27 partaide izan ziren eta aurten, berriz, 25. Espero genuena. Hala ere, esan beharra dago jende asko kanpoan geratu dela fetxaz kanpo etorri baita izena ematera. Datorren urteari begira izena emateko epea



Alga usaindegiak lehiaketara aurkeztutako eskaparatea

lehenago zabaldu beharko dugu".

## Era guztietako dendak

Partaideen artean era askotako komertzio eta denda aurkitzen ditugu; erropa-dendak, janari-dendak, burdinaki dendak edota okindegiak. Abajok aipatzen duen bezala, "dudarik gabe eskaparateak eta kaleak apaindu egiten dira Gabonetan eta horrek ere

eragina izaten du produktuek modu erakargarriago batez aurkezteko orduan. Saltzeko gantxo eta Gabonetako argien konplemento bezala ere uler daiteke eskaparate lehiaketa».

## Kalitate maila handia

Lehiaketa gaztea izan arren, Luis Abajoren ustez kalitate ona erakutsi dute orainarteko partaide guztiek.

"Kalitate ona egon da bai eta iazko lehiaketa oso disputatua izan zen. Aurten ere zer ikusirik badagoela uste dugu eta oso gauza onak ikusi ditugu honezkero. Orjinaltasuna baloratu da gebienbat, ze epokatan gauden kontutan izanik eta apaingarrien prezioari jaramonik egin gabe. Denda bakoitzak bereak diren produktuak erabiltzea ere baloratzen da"

**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 771424

**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



# "Berrigara Urtekaria 92" eta "Berrigara Gida 93": sekulako arrakasta herritarren artean



**Juan Antonio  
Migura**

*DVko berriematea*

"Nere ustez, beharrezkoa zen dokumentua da. Urteko enziklopediatxoa kontsidera daiteke. Edozein kontsulta egiteko oso ondo dator, urtean Bergaran gertatutako notizia inportanteenak biltzen dituelako. Irakurri zein ikusteko oso atsegina.



Egunkariak egiten dituzten urtekarien antzera, informazio lokala biltzen duen urtekaria ezinbestekoa zen eta orain, badaukagu".

**Rosarito  
Larrañaga**  
*Dendaria*

"Oso polita benetan, oso interesantea iruditzen baitzait aurtan Bergaran gertatu den guztia biltzen duen liburutxoa argitaratzea.

Neri, batez ere, kultura arloan egin duzuen lana gustatu zait. Herriko kultur talde guztiak egertzen dira eta oso atsegina egin zait guztien argazkiak ikustea.

Dendan, salgai jarri genuenetik, txurroak bezala saldu dira. Jendearen erantzuna, oso ona".



**Jose Luis Beitia**

*B.K. Elkarteko  
entrenatzailea*

"Astebukaeran erosi eta gainera irakurtzeko aukera izan dut. Oso ondo dago. Argazki asko dakar eta datak ondo zehaztuak daude.

Kolekzionatzeko urteko laburpena.

Koltsulta moduan erabiltzeko primeran dator Bat nator urtekaria egiterakoan erabili duzuen ikuspegiarekin".

**Izaskun Labaien**

*Aritzetako  
zuzendaria*

"Gainera begirada bat eman diot liburuari eta ondo dagoela iruditu zait. Pentsatzen dut Bergaran duden kultur eta kirol talde guztiak agertzera-koan, herrian egiten dena ondo erakusten duela eta kanpotarrak etortzen direnean ba, Bergaran zer dagoen erakusteko oso baliogarria dela.

Oso trebeak izan zarete hainbeste argazki jartzerakoan, horrela, behintzat, salmenta ziurtaturik daukazu".



**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

**ORTZI**  
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68





## Urtekaria non erosi:

### Tabernak:

- Kiroldegia
- Amilotx
- Pol-Pol
- Batzokia
- Kortazar
- Ganbara
- Zapelaitz
- Arrano
- Infernokua
- Ilargi
- Taberna zaharra
- Beheko taberna
- Ortzi
- Txuringo
- Mekolalde

### Dendak:

- Marcó
- Egizabal
- Aisor
- Lonbide
- Mujika jostundegia
- Zatoia
- Biltoki
- Idatzi
- Argazki
- Zubikua
- Kiñu
- Foto sistema
- Konde Panaderokua
- Peñalba
- Goxo toki
- Etxepare-Bilintx
- Larrañaga gozotegia

- Zapatodos
- Guisasola ferreteria
- Mujika gozotegia
- Herran
- Ikasle
- Maximo Gaztelu
- Kaja Laborala
- Guipuzcoano

### Kalean:

- ABENDUAK 23:
  - San Martin Plazan
- ABENDUAK 24:
  - San Martin Plazan
  - Irala kalean
- ABENDUAK 25:
  - San Martin Plazan
  - Santa Marinaran
  - Irala kalean

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*Erratzu*

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**ZUBIETA**

**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guzietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48



**Gabon gauerako mahaian janari- edari onenak nahi izaten ditugu. Urtean zehar erosi ezin ditugun kapritxoak Gabonetarako uzten ditugu. Baina zenbat kostatzen zaizkigu kapritxo horiek. Hori jakiteko asmoz, denda, kontsumo bulego eta merkatura jo dugu.**



# Gabonak: gehiegikeria?

Gaur egun Gabonek garai bateko erlijio zentzua galdu egin dute batzuentzat eta gehienak normalean bere familia-rekin pasatzeko egun berezizat hartzen ditu.

Baina Gabon egunen bereizgarriak nabarmentzen dira, beharbada, jandetan egiten den aparteko gastua izan liteke. Bergaran badago denda bat gauza bereziak saltzen dituen. Denda honen izena Txukun da. Mari Karmen Sesmak Txukunen lan egiten du

eta berak dioten moduan "Gabonetan igartzen da salmentetan igoera bat, jendeak, pateak, turroiak eta enbutido onak erosten ditu".

## Krisiaren eragina

Baina badirudi krisiak ere izan duela eraginik denda hauetan: "aurten salmentak poliki-poliki doaz, duela urte batzuk jendeak gauzak probatzeko grina gehiago zuen, Kontzeziño zubian bezeroak Gabonetan jateko

turroiak probatzera etorritzen ziren baina aurten hori ez da gertatu".

Bizi modu modernoak ere badu eraginik Gabon gaueko afarian eta jende gazteak ez du pasatzen denbora asko sukaldean. Mari Karmenek dioenez: "jendeari kaleko giroa eta festa etxean egotea baino gehiago gustatzen zaio, hori dela eta asko saltzen dugu enbutidoa, pateak... hau denbora gutxian prestatzeaz gain, nabiko ondo gelditzen da".

Txukunek bezero normalez aparte enpresei ere saltzen dizkie Gabonetako saskiak: "Alemaniara ere bidali ditugu hemengo osagaiekin egindako zestak eta nabiko arrakasta izaten dute urdaiazpiko eta turroiek".

Beraz, Gabonetan sukaldean ordu piloa sartu nahi ez duenak, badu aukera lan gutxirekin, afari bikaina prestatzeko. Eta, etxean geratu beharrean, egun berezi hauek kalean lagunekin igarotzeko.

## Iturkintz Berri

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

### INSTALAZIOAK:

Iturkintza  
Berogintza  
Gasa

☎ 76 28 04

## Taberna Kafetegia EHIZTARIAK

LOS CAZADORES  
Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA



## Txaro Jauregi

Kontsumitzaileen bulegoko  
arduraduna

### "Erosi aurretik, prezioa eta kalitatea ondo begiratu behar dira"

- Zein da zuen funtzioa?

- Gu hemen kontsumitzaileen kexak aztertze eta kontsumitzaileari informazioa emateko gaudete. Mota askotako informazioa ematen dugu, adibidez jendeak pisua erosi nahi duenean argibideak ematen dizkiegu guregana hurbiltzen direnei.

- Jendea kexa askorekin etortzen al da zuen bulegora?

- Bai, gehienbat bidai agentziekin, etxebizitza arazoekin (maizter eta etxearen jabearen artean), banketxeen prestamoen eskaera bat dagoe-

nean ere guk hona hurbiltzen direnei nola egin behar dituzten gauzak aholkatzen diegu.

- Gabonei begira zerbait berezirik antolatuzue Kontsumitzaileen bulegotik?

- Aurten Bergarako kontsumitzaile eta dendarienezat zirkular bat atara dugu. Bertan argi esaten dugu eskaparatean eta denda barruan salgai dauden produktuek beraien salneurria argi eta garbi adierazita eraman behar dutela, kontsumitzaileari informazioa erraztu behar zaio gero kexa edo erreklamaziorik egon, ez dadin.



- Zure ustez gabonetan salneurriek gora egitea legezkoa al da?

- Baietz uste dut, dena den jendeak gabonetan kontu askorekin ibili behar du, zeren orain (duela 3 egun) prezioak baxuagoa daude eta jendeak gabonetako erosketak egiterakoan ez luke itxoin beharko azken momenturarte, prezioak baxuagoak daudenean orduan erosi behar dira gauzak eta.

- Zer gomendatuko zenioke gabon hauetan

zerbait erostera doanari?

- Lehenik eta behin prezioari ondo begiratzeko eta bigarrenik konpara dezan kalitatea eta prezioa. Erosleak kalitateari baino prezioari begiratzen dio gehiago eta markak ere zerikusi handia du.

- Gabonetan salaketak ugalitzen dira ala beti bezala izaten al dira?

- Ni berria naiz, baina uste dut gabonetan ez direla kexak ugaritzen.

#### Arrainaren prezioak abenduaren 19an

Legatza: 2.100 pzta. kiloa  
Angulak: 21.000 pzta. kiloa  
Bixigua: 4.100 pzta. kiloa  
Lenguadua: 2.000 pzta. kiloa  
Langostinoa: 1.900 pzta. kiloa  
Txangurroa: 750 pzta  
Itsasapoa: 1.800 pzta. kiloa  
Txipiroiak: 1.200 pzta. kiloa  
Bakailau Kokotxak: 1.850 pzta. kiloa

#### Arrainaren prezioak abenduaren 24ean

Legatza: 2.200 pzta. kiloa  
Angulak: 18.000 pzta. kiloa  
Bixigua: 4.400 pzta. kiloa  
Lenguadua: 2.000 pzta. kiloa  
Langostinoa: 1.900 pzta. kiloa  
Txangurroa: 1.500 pzta.  
Itsasapoa: 1.800 pzta. kiloa  
Txipiroiak: 1.400 pzta. kiloa  
Bakailau Kokotxak: 2.200 pzta. kiloa

AGENTZIA:  
J. ELKORO

lbargarai 2, behe

Tfnoa: 76 57 85

BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA


ZURICH TALDEA ASEGURUAK

SURPE  
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



**Gabonak familiarekin pasatzeko egunak izaten dira. Urtean zehar etxetik kanpo bizi diren zenbaiti, eta arrazoiren bategatik gabon gaua etxetik kanpo igarotzera behartuta dauden bergarar batzuri galdetu diegu, nola eta norekin igoroko dituzten egun berezi hauek.**



**Agustin Aranzabal**  
Realeko jokalaria  
19 urte

Agustin urtean zehar Donostian egoten da, baina Gabonak familiarekin pasatzeko asmoz Bergarara etorriko da. Urtero moduan, Agustinek Gabon gauean bere familiarekin afalduko du eta berak dienez "afaria amak prestatuko du eta urtero moduan gauza onak, baina ez oso konplikatuak jango ditugu".

Agustinek ostiralean entre-

# Nola eta norekin igaroko dituzu aurtengo Gabonak?

namenduekin jarraitzeko, berriz, Donostia alderantz joan beharko du, hurrengo urtarilaren 3an liga partidua bait du.

Gabon Zaharretarako berriz bueltatuko da Bergarara, baina ezin izango du parranda handirik egin 2 egunetara partidu garrantzitsua bait du.

\* \* \*

**Iosune Azkarate**  
Erizaina  
22 urte

Iosune Mendaroko eritegiari ari da lanean eta bere lanbideak dituen alde txarretariko bat gaueko guardiak dira.

Aurtengo Gabon gaua bere lankideekin pasa beharko du, baina dagoeneko ohituta dago eta zerbait berezirik egiten duten galdetu diogunean, zera erantzun digu: "orainarte Arrasateko eritetxean aritu naiz lanean eta egun berezi hauetan eritetxean lanean gelditzen ginenontzat afari

berezia egoten zen, baina aurtun Mendaron ez dakit ze afari izango dugun".

Gabonak eritetxeetan nahiko bereziak izaten dira eta Iosunek esan digun moduan, "oso gaizki ez dauden gaisoak normalean etxera bidaltzen dira egun hauek familiarekin pasatzeko eta besteendako Gabon egunean Olentzero egunean kantak eta opariak egoten dira".



\* \* \*

**Aldoka  
Maldoka**  
**TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA


*Carmen Garate*

Plastikoak orokorrean,  
oinetakoak, opari gaiak,  
jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Jostailuetan %  
20ko deskontuak





**Fermin Lazkano**  
Euskaldunon Egunkariako gerentea  
34 urte

Fermin Lazkano aurtengo Gabonetan, Eibarren bizi den arren, Bergarara etorriko da. Ferminek Gabon gaua eta Gabon Zahar eguna bere familiarekin pasatuko ditu. EGUNKARIAko gerenteak 3 jai egun bakarrik izango ditu, baina egun hauek Bergarako lagunekin eta bere familiarekin egoteko aprobetxatuko du.


Beste urte batzuetan Fermin Gabonetan mendira joaten zen, baina aurten lanak beteko ditu bere Gabonetako egunik gehienak, zeren bakarrik Gabon Gaua eta Gabon Zaharrak izango ditu jai. Gabon Zahar egunean Lazkanotar guztiak aita eta amaren etxean bilduko dira eta noski Fermin ere han izango da, bere amaren sukaldari trebeziak probatzeko.

\* \* \*

**Rikardo Azkargorta**  
Suhiltzailea  
34 urte

Rikardok 7 urte daramatza suhiltzaile lanetan eta aurten Gabon gaua bere amaginarrebaren etxean pasatuko du. Baina beste urte batzuetan Gabon gauean edo Gabon zahar egunean lana egitea tokatu zaio eta berak esan digun moduan: *"lanean geundenean basean afaltzen genuen, ban turroia etab. jaten genuen, baina gogoratzen dut duela 5 urte Gabon Zahar egunean telebista ikusten geundela dei bat izan genuela Arrasatera sute bat emendatzera joateko"*.

Aurten lehen esan dugun moduan Rikardok gabonetan jai izango du eta Gabon gauean suhiltzaileekin telebista ikusten egon beharrean bere lagunekin eta amaginarrebaren etxean pasatuko du.



\* \* \*



**Margarita Sasieta**  
Mizpirualdeko bizilaguna  
80 urte

Margaritak 7. urte daramatza zaharren egoitzan eta ordutik bere etxe berrian Gabon asko pasa ditu. Aurten ere Gabon gaua egoitzan pasako du, baina berari ez zaio inporta zeren bere ustez, *"bemen lagun asko ditut eta gainera denok oso ondo konpontzen gara"*.

Egoitzara joan baino lehen Margaritak Gabonak bere familia guztiarekin pasatzen zituen, baina orain familia berri bat aurkitu du bere bezala egoitzan daudenekin eta zaintzen dituztenekin.

Gabon gaua nola ospatzen duen galdetu genionean: *"ondo afaldu ondoren, bemen oso ondo jaten da eta, andrak abestu eta dantzatu egiten dugu eta horrela gorputzak aguantatzen duen arte. Bestalde gizonak afaldu ondoren kartetan edo dominoan jokatzen dute"*.

\* \* \*

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80  
76 06 37

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4, EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE



# ZAIKAZKO

Telesforo Aranzadi, 3 ☎ 76 01 66



ANTENA  
PARABOLIKOAK

**BIDOKLUBA**

Alkilerra,  
100 pzta.

**Panasonic**

TELEBISTA APARAILUAK

**AKAI**

INPORTAZIOKO  
COMPACT DISC-ak

**Technics**

HI-FI SISTEMAK

**Nintendo**

BIDEO KAMARAK  
TELEBISTA APARAILUAK  
BIDEOAK

JATORRIZKO BIDEO KONT SOLAK,  
JOKU PILO BATEKIN



ZORIONAK eta  
URTE BERRI ON

**EGUZKITZA**

**SAGARDOTEGIA  
ERRETEGIA**

- URTARRILAREN 4an  
ARRATSALDEKO 8etan  
ZABALDUKO DA
- SOINUJOLE eta  
BERTSOLARIEKIN

**MARTXORA  
ARTE  
ZABALIK**

## MENUA:

- Bakailau tortila
- Saiheskia
- Intxaurrek eta gazta
- Sagardoa nahi beste  
2.000 pzta.

Lagun arteko afariak  
Bataio bazkariak  
Eguneko menua...  
Haragia eta arraina  
parrilan.

IGANDEA ATSEDEN EGUNA



**Baditugu, dagoeneko, aurtengo kirol sariketako irabazleak. 200 boto inguru jaso ditugu eta boto emaleen artean, Ione Telleriak irabazi du Bartzelonara edo Madrilerako aste bukaera baterako bi pertsonarentzako bidaia. Eneko Tabuenkari, berriz, Udak Kirol Zerbitzuko karneta tokatu zaio.**

**IÑIGO GALLASTEGI, IBAN RODRIGUEZ, LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA, IÑIGO IGARTUA ETA ENRIQUE SAN NICOLAS, II. KIROL SARIKETAKO IRABAZLEAK**



**KIROLARIRIK ONENA**

1. Iñigo Gallastegi (58 boto)
2. Josu Otaegi (33)
3. Amaia Arantzabal (21)



**ETORKIZUNIK ONENEOA**

1. Iban Rodriguez (41 boto)
2. Aitor Larrea (36)
3. Gorka Gonzalez (35)




**KIROL TALDERIK ONENA**

1. Lokatza (44 boto)
2. Igeri Elkartea (40)
3. Pol-Pol Menmdi Saila (30)



**GOI MAILAKO KIROLARIA**

1. Iñigo Igartua (52 boto)
2. Agustin Arantzabal (19)
3. Damaso Gallastegi (18)



**SARI BEREZIA**

Enrique San Nicolas

63 urteko katalandarra, 1962an etorri zen Bergarara eta bertan eman zituen urte mordoak bat atletismoan buru-belarri. Luzera jauzian Jubenil mailako Espainiako Txapelduna (1946), Triple Saltoko Jubenil mailako Espainiako Txapelduna (1947) eta Triple Saltoko Espainiako Txapeldun absolutoa (1952). Bergarako atletismoak ezagutu dituen lorpenik aipagarrienak berari zor dizkiogu hein handi batean eta ondo merezitako saria jasoko du hilaren 29an, Udak Kirol Zerbitzuaren eskutik.

**Sari banaketa hilaren 29an arratsaldeko 6etan Kultur Etxean**

**K**abia  
*Alzariak*  
 Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

**BELENGUA**  
**Taberna**  
 Pintxoak, kafeak...  
 Ozaeta 12 ☎ 76 20 24



• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA

**24 OSTEGUNA**

• **LIBURU AZOKA.** "Ekologia, ingurugiroa eta natura". 18.00etatik 20.00etara. San Martin Plazan. EGUZKIk antolatuta.

• **ENKARTELADA.** 20.00-etan, San Martin Plazan. "Seni-deak" taldeak antolatuta.

• **ZINEA.** "Qué desparrame". Novedades aretoan. 17.00etan.

**25 OSTIRALA**

• **KOMIKI LEHIAKETA.** Jardun elkarteak antolatutako Komiki Lehiaketako sari bana-keta. 12.30etan Kultur Etxean.

• **MARTXA.** Herrera de la Manchako espetxera martxaren irteera. 11.00etan frontoian.

• **ZINEA.** "Tomates verdes, fritos". Novedades aretoan. 17.00., 19.30. eta 22.30etan.

**26 LARUNBATA**

• **BIZAR ZURI.** Seminariotik irten eta herriko kaleak zehar-katuko ditu zakurrek eramanda-ko trineoan. 19.00etan.

• **ZINEA.** "Falsa seducción". Novedades aretoan. 17.00., 19.30. eta 22.30etan.

**27 IGANDEA**

• **ZINEA.** - "Qué desparrame". Noveda-des aretoan. 11.00etan, Matina-lean.

- "Falsa seducción". Noveda-desen. 17.00., 19.30. eta 22.15-etan.

**28 ASTELEHENA**

• **UR JOLASAK.** Haurren-tzako. Igerilekuan, 10.30etatik 13.00etara.

• **KIROLA ETA JOLASAK.** Edadetuentzako. Kiroldegian, 10.00etatik 13.00etara.

• **ZINEA.** "Falsa seducción". Novedades aretoan. 19.00etan.

**29 ASTEARTEA**

• **DIPOSITIBAK.** Munduko gailurrik altuenetan (Everest, Cho Oyu, Manga Parbat...) ateratako diapositiben emanldia, Ramon Portillaren eskutik.

• **JOLASAK.** Haurrentzako. Kiroldegian 15.30etatik 18.30-etara.

• **KANTALDIA.** Mikel Markez kantaria, Pol-Pol tabernan, E.H.E.ek antolatuta.



Mikel Markez

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA

**ARIZNOA**

**Taberna**

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

**JULIA**  
**Frutadenda**

Matxiategi 4, behea  
BERGARA

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA



**ONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •**

**30 ASTEAZKENA**

• **JUDO ERAKUSTALDIA.**

San Martin plazan 18.30etan eta ondoren, txokolate-jana.

• **ZINE-KLUBA.** "Kagetora el guerrero". Novedades aretoan, 19.30etan.

• **GAZINEMA.** "Los inmortales". Antzuolako zine aretoan, 20.30etan.

• **ZINEA.** "Mujer blanca, soltera busca". Novedadesen, 17.00etan.

**1 OSTIRALA**

• **ZINEA.** "Mujer blanca, soltera busca". Novedadesen, 17.00etan.



*Mujer blanca, soltera busca*

**2 LARUNBATA**

• **BOLEIBOL.** Larunbatean emango zaio hasiera kiroldegian I.go Boleibol Txapelketari.

• **FOLK JAIALDIA.** Txanbela eta Ortzi taldeekin folk jaialdia Mariaren Lagundian. 22.30etan.

• **ZINEA.** "La ciudad de la alegría". Novedadesen, 17.00., 19.30. eta 22.30etan.

**3 IGANDEA**

• **ZINEA.**

- "Arma Letal 3". Novedadesen, 17.00etan, Matinalean.

- "La ciudad de la alegría". Novedades aretoan, 17.00., 19.30. eta 22.15etan.

**4 ASTELEHENA**

• **LIBURU AZOKA.** "Ekologia, ingurugiroa eta natura". 18.00etatik 20.00etara. San Martin Plazan. EGUZKIk antolatuta.

• **ZINEA.** "La ciudad de la alegría". Novedadesen, 19.30etan.

**6 ASTEAZKENA**

• **ZINEA.** "El príncipe de las mareas". Novedadesen, 17.00., 19.30. eta 22.15etan.

**ONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •**

**Corpa Bazarra**  
 JOSE CORRIUS  
 Jostailu sorta bikaina!!  
 urtarrilak 3: egun guztia zabalik  
 Barrenkale, 13 BERGARA  
 ☎ 76 19 80

**Siaska**  
 Dena zure haurarentzako  
 Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**HARATEGIA - URDAITEGIA**  
**Sebastian Imaz**  
 Bildotsa, txahala eta oilazkoak  
 Harane Erreka, 1  
 76 32 67 BERGARA





Albéniz

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**TOKI-EDER  
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

ARREGUI, E.M.



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**Zer eskatu diozu Olentzerori?**



**Miren Iraeta**  
4 urte

Ondo portatu naiz eta makillaje estutxe bat eskatu diot.



**Beñat Arregi**  
5 urte

Mameluen gaztelua eta zaldi bat jolastekoa. Eman diot karta Olentzerori.



**Jokin Oregi**  
4 urte

Txandala, Mickey Mouse puzzlea eta baita baserrixa eta kokodriloa ere.



**Lorea Ugarte**  
5 urte

Barbie "espumas" eta gero etxe bat labadoriakin. Amatzok lagundu zidan kartia idazten.

**URKIOLA**

**moda**

Merkealdiak  
% 30ko beherapenak

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA





## Aspertzea

Zertarako idazten dugu? edo irakurri? edo hainbeste lan egin? edo ikasi? edo... Ez dakit. Beharrezkoa al du gizakiak irratia, telebista, kotxea, bainera edota ordenadorea bezalako gauzak edukitzea?

Goizero ohetik jaiki eta nire txakurra lurlean luze ikustean beti pentsatzen dut gauza bera: "zelako inozoak garen gizakiok!". Eta ziur zuetariko askok ere noizbait gauza bera pentsatu duzuela eta gehienetan, goizean goiz altxatzen zaretenean.

Bai, badakit zertan pentsatzen ari zareten: ezer egitekorik ez bagenu bizitza aspergarria litzateke; baliteke. Baina aspertzea ere ez al da gizakiak asmatu duen zerbait? Nik uste, aspertzea dela beste animaliangandik ezberdintzen gaituena eta horregaitik ari gara behin eta berriro gauzak asmatzen. Nik, adibidez, guztiz aspertuta nengoan eta tontakeria hauek idatzi ditut.

**Jon Ander Bengoa**



## Enrique San Nicolas

Jakin dudanean, Enrique, zu hautatu zaituztela Udal Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak antolatutako Kirol Sarietan Sari Berezia jasotzeko, guztiz poztu naiz.

Benetan, Bergaran, norbaitek kirolaren alde eta bereziki ATLETISMOAREN alde zerbait egin badu, hori Enrique San Nicolas izan da, dudarik gabe.

Nahiz eta ni oso berandu hasi, -12 urte nituen- Enriqueri jakin zuen nire barruan ATLETISMOAREN eta KIROLAREN grina sortzen eta niri bizitza era onean bizitzeko beste gaitasun bat eman zidan.

Benetan asko zor diot eta zor diogu Enriqueri: nik dakidan guztia, berak erakutsitakoa da. Hainbat IRAKASLE, MONITORE, ENTRENATZAILE, ATLETA eta AFIZIONATUk zor dio Enriqueri, ATLETISMOari dioten maitasun hori.


Zenbat ordu, diru eta pazientzia galdu zenituen Bergarako ATLETISMOA aurrera ateratzeko, baina zuk pozik egiten zenuen lana.

Zenbat garaipen eta ospe lortu zen zurekin! Egitan lan bikaina egin zenuena.

Penagarria da, Enrique, zuk utzitako hazi horrek jarraipenik ez izatea. Bergarako neska-mutilak hasten dira gogoz, kemenez eta ilusioz beterik atletismoan baina gero Bergaran ez daukate jarraitzeko modurik.

Penagarria da baina guk, bitartean, hemen jarraitzen dugu, zugandik ikasitako guztia, beteei erakutsi nahian eta egun batean dena konponduko den itxaropenaz.. ZORIONAK eta MILA ESKER.

**Jaime Garzia**



PAPERDENDA

**Marcó**

Bidekurutzeta, 44  
Tel. 943 / 76 05 54  
Fax. 943 / 76 05 54  
20570 BERGARA

**ELKAR**

Arruriaga 1, behea ☎ 76 58 16  
BERGARA

- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
  - Termo-enkolatuak
  - Burdineko espiralak
  - Plastikozko espiralak
  - Faszikuloak
- JENDEARENTZAKO FAXA
- PLASTIFIKAZIOA
- PLANOEN KOPIAK



## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoo  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## TABERNA ZAHARRA

*Jatetxea*

**Bazkariak  
eta  
afariak**

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

## EDEL tapizdenda

Etterako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltxak,  
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

*Kabutzia*

ARRAINDEGIA

Fraiskoazuri 6, Tfnoa: 76 56 62

# Laskurain


saneamenduak

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 24 89 BERGARA



### □ Mendia eta bere arriskuak

Joan den ostegunean Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako diapositiba emanaldian, **Amaia Aranzabal** mendizale bergararrak Pol-Polen omenalditxoak jaso zuen UNEDeko aretoan. Lehenbizi Amaiak bere osasunak hobera egin duela argi utzi eta Cho Oyun izandako esperientzien berri eman zien bertan bildutakoei. Ondoren, Andoni Larrañaga Pol-Poleko presidentearen eta Pako Iriondo Euskal Mendi Federazioko presidentearen eskutik plaka oroigarri bat jaso zuen omenaldi gisa. Eta *Mendiko medikuntza eta sokorrismoari buruzko II. ikastaroa* burutu duten 46 lagunei diploma banatzeko aprobetxatu zen ekitaldia, eta Jabier Areitiok guztiak erretratu zituen.



### □ Santo Tomas eguna

Astelehenean Santo Tomas giroa Bergaran ere somatzen zen. Ohiturari jarraituz, herriko taberna guztietan txistorra eskeintzen zuten eta ohizkoa baino jende gehiago zebilen kalean astelehen goiz bat izateko. Gabonen atarian eta turroia iritsi bitartean, txistorradari ongi etorria!





□ **Olentzero Bergaran**

Olentzero Bergarara iritsi zitzaigun asteartean haur, gazte eta nagusien lasaitasunerako. Ohizkoa den bezala, gaztetxoek eskaini zioten harrera bikaina izan zen eta Olentzerok aurten ere opari bikainak ekarri dituela esan zien karta eskura eman zioten guztiei. Ikatz gutxi ekarri omen du eta ondo portatu direnek saria jasoko dute, dudarik ez. Haurrek bere omenezko kantak eskeini zioten eta Olentzerok gure herrira etortzea oso gogoko duela adierazi zuen. Argazkian, Aranzadi Ikastolara eginiko bisitaldian.




□ **Arkitektura diputatua Barrenkalen**

Joan den ostiralean **Antxon Arbulu** Arkitektura diputatua izan zen Bergaran Barrenkaleko fatxaden berrizketa lanak nola doazen ikusteko. Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Gallastegi Hirigintza zinegotzia eta Luis Laskurain Suradesako ordezkariaren laguntzaz obrak bisitatu nahi izan zituen Gipuzkoako beste zenbait herritan honelako beste berrizketa batzuk egiteko asmoa baitago.


*Zertan  
dibardute  
ba?*

**RAMON AMBROI**



23 urterekin datorren urtean moto txapelketak uzteko asmoa duen bergargar hau 2. geratu da Euskadiko Moto Igoeren junior mailako Txapelketan, larunbatean Jaizkibealeko proban 3. postuan sailkatu ondoren.


**JABIER LARRAÑAGA**



59 urteko bergargar honek 2. postua eskuratu zuen Espainiako selekzioarekin Reimsen (Frantzia) jokaturako Muestrako Txakurren Munduko Txapelketan Holandako selekzioaren atzetik.



PINTURAS BERGARA, S.L.



Arane Erreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxe: 76 11 40  
**BERGARA**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...



## Umore giroan

Eskolako tontua,  
estraperlista llistua

Eskolan alkarrekin ibilixakuak ziran. Bata argi-argixa, bestia tonto-tontua. Estraperlo denboran, barriz ikusi biarizan ziran. Argi-argixa fabrika bateko burua zan. Bestia, estraperloko materixalak saltzen Bilbon bizi zan. Juan da gure gizon argixa Bilboko Patxo kafeterixara, Arenalian. An eitxen ziran orduan materixalen salduerosketak. Etorri da gure tontua "Mercedes" zoragarri baten kafeterixara eta esatetsa eskolako lagunari:

- Materixal ori biok? Zenbat tonelada nai ditxuk? Ori nere kontu. Laister izangok Eibarren. Inbitau zeban, gaiñera, bazkaltzera. Eta bazkaltzen ziarduela, esaten detsa tontuak:

- Bai, nik diru asko eñ

juat estraperluan.

- Bai ba, lapurretan egiten dozue-ta...

- ¡Qué va! Nik eitxen dotena biarra dok, eta asko gaiñera. Nik 3 por 100 bakarrik kargatzen juat.

- 3 por 100ekin egiten dok ainbeste diru...

- Ba, kalkulaik, nik ogei duruan eristen dotan materixala, 300 pesetan saltzen juat!.

\* \* \*

### Ezkontz tratuan

Bi familixetakuak baziarduen ezkontz tratuan. Orretan mutillan aitxak, aua zabalduaz, au ta bestia, diranak eta ez diranak eskeintzen... Andriak diñotsa:

- Gizon, baiña... orrek danok eztaukaguz gero...

- Ez estutu, ainketan diardut, ez emoten.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Arrosarioko Andre Mariaren erretaula (eta II)


Erretaula honetarako ere Carmonak bi eskultura egin zituen, Arrosarioko Andre Maria eta S. Joserenak, alegia; hauen eta Madrilgo Nafartarren San Fermin elizarako ondoren egin zituenen artean harremanak ikusi dira. Andre Mariaren imajina kalitate haundiko lana da, barrokismo bizikoa eta oso mugitua, eta mugikortasun hori bai jarreran eta bai tolesturek sortzen duten erritmoan lortzen da: erori beharrean badirudi diagonal sendo bati jarraituz gora egiten dutela ezkerreko beso ondoan sortarazten den jirabira eta jauzi batean amaitzeko. Tamainu itzela badu ere, ez da astuna gertatzen: bere rasguak ezin finagoak dira, tolesturak mugikortasun apartekoak, eta hitz batez, monumentaltasun hori darion duintasunetik eratortzen zaio; obra honetan edertasun formal eta efektu piktorikoarekin ba-



Arrosarioko Andre Maria.

tera goi mailako exekuzioa azpimarratu beharra dago. San Joseren lanaz gauza bera esan liteke, multzoaren eskulturarik ederrenetakoa baita. Gelditzen diren bestelako imajinak, orobat, ederrak dira, Carmonaren esku trebearen xarma falta bazaie ere.

Mari Jose Aranburu  
Jesus Gil Massa



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

## KIZKUR



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

### Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

## BERGARA BOLTSAK

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira,  
narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetarikoko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



# BONOFOTOA



M. A. Elkoroberetzar



## F. Javier Azkarate

F. Javier Azkaratek asmatu du azken BONOFOTOko saria. Orain bi asteko argazkian **Usondoko parkea** agertzen zen eta bertan haritz amerikanoa, ezkia, hagina, indi gaztaina, platanoa, ginkoa, izeia, haritza, Himalaiako zedroa, izei gorria, artea, sekuoia edota urkia aurki ditzakegu. Zorionak **10.000 pzta.**ko saria jaso duen Javierri eta baita besteoi ere, Gabonak dira ta.

*Nortzu dira Bergarako banketxe batetan aurkitu ditzakegun **bi** pertsonaia ezagun hauek eta nortzu dira obra horien egileak?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Aste honetako saria : 10.000 pzta.**

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**



# HERRAN ETXEA

EZ ZAITZALA ZORATU "KAJA"K,  
BEGIRATU ONDO BARRUA

PREZIOZ

BERDINIK GABEA

SALDU OSTEKO ZERBITZUZ

140.000 pzta, Kontsulta  
itzazu ordainketa  
moduak. 38 hilabetera  
arte.

MHC 500  
SONY ekipoa  
+ 10.000  
pzta.




Tipografia huts batengatik izan ezik eta generoa bukatu arte.

☎ 76 12 22

# Txuringo

## GABON ZAHAR EGUNEKO AFARIA ETA KOTILOIA



## Jatetxea

### MENUA:

- Urdaiazpikoa
- Marisko-koktela tuterako kukulutzuekin
- Hojaldretxo beteak
- Marisko krema
- Legatza labean erreta
- Txerrikumea
- Postrea: turroia, mazapana, etab.
- Etxeko ardoa
- Txanpana
- Kafea, kopa eta puroa
- Musika, afaria alaitzeko

URTE BERRIAREN ETORRERA OSPATZEKO  
KOTILOIA, MAHATSA ETA TXANPANAREKIN.

PREZIOA: 7.000 pzta.

ORDUA: Gaueko 9ak.

• AFARIRAKO IZENA EMATEKO DEITU  
TELEFONO HONETARA ☎ 76 48 63



# Iñigo Gallastegi eta Juan De Borja Euskadiko igerilari konpletuenak

Iñigo Gallastegik pasa den larunbatean 3. aldiz Euskadiko txapelketa lortu zuen. Igerilari bergararrak 20 urtekin badaki zer den txapelduna izatea eta berak dioenez "nik nire egoera fisiko onena denboraldi hasieran lortzen dut, ez dakit, baina, beste igerilari batzuei geiago kostatzen zaie fisikoki punta-puntan egotea".

Iñigok asko kostatako garaipena lortu zuen, lau probetatik, tximeleta, bizkar, bular eta askeetan Iñigok hiru proba irabazi zituen. Txapelketa honetarako Iñigok ez du egin entrenamendu berezirik eta berak esan bezala "aurten waterpoloan hasi naiz jokatzeko eta entrenamendua guztiz aldatu dut, orain astean 3 aldiz entrenatzen dut, azterketak direla eta denbora asko galdu bait dut. Baina txapelketa egunean harriturik gelditu nintzen, lau probetan egindako denborak nire markarik onenen artean zeuden eta kontuan hartuta egindako entrenamenduak pozik egoteko modukoa da".

Juan De Borjak 14 urte ditu eta bere emaitzarik



Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak proba amaitu ondoren.

onena pasa den larunbatean lortu zuen. Juanek aparki esplikatzeko bere garaipena "joan zen urtean 3. na izan nintzen eta aurten itzako bi lehenak ez dira etorri, honek aukera asko ematen zidan txapelketan irabazteko. Larunbateko txapelketan nik espero bezala aritu nintzen, tximeleta proban emaitza bikaina lortu nuen, bizkarreko proban ez nuen denbora oso onik egin, baina gero bular eta askeetan denbora onak lortu eta Euskadiko txa-

pela eskuratu nuen".

Juanek etorkizunari begira Espainiako txapelketarako sailkatzeko esperantzak ditu eta honetarako gogor aritzen da egunero bere proban, 100 m. tximeletan, Espainiako txapelketara joateko sorian duen segundua kentzeko asmoz.

## Jon Jauregi bigarren

Jon Jauregik bigarren postua lortu zuen eta ez da makala berak lortutakoa. Jon txapelketara

joan baino lehenago 5. postuan zegoen sailkatu-rik eta berak dioen moduan "2. postua oso ondo dago, nik 4. na edo 5. na izatea espero nuen, baina oso proba bikaina burutu nuen, goizeko probetan oso ondo aritu nintzen eta arratsaldeko probetan 2. postua lortu nuen". Jonek igeri egiten txikitatik ikasi zuen, bere aita Jesus Jauregiri esker eta berak dioenez "2. postua lortu nuenean aitak eskua eman zidan eta honek asko poztu ninduen".

## MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3  
☎ 76 10 34

pastelak,  
errellenoak,  
tostoiak,  
tartak...



## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA





### Uberako ehiztariak. 1.958.

**N**aturarenganako kezka gero eta haundiagoa den garaiotan gauzak aldatuaz badoaz ere, ez dira oraindik urte asko azeri, azkonar eta antzekoren bat botatzen zenean, Udaletxera joan eta dirulaguntza jasotzen zela. Ohitura zabaldua zen, halaber, piztia hartu eta baserriz baserri borondatea eskatuz joatea ere. Beste garai batzuk ziren haiek, baserrietan oiiloak etxe bueltan libre ibiltzen zirenekoak eta azeriari gaur baino beldur haundiagoa zitzaionekoak.

Horregatik ez da harritzekoa Uberako lau gizonezko hauek pozik eta zapata berriekin argazkilariaren aurrean jarri izana.

Ezkerretik eskumara, Jose Ramon Elexpuru, Ezekiel Aranzabal, Jose Loiti eta Tomas Aranzabal dira bertan agertzen direnak.

*Estepan Plazaola*  
Argazkia: Eustakio Arbulu



*jolas*



**GABON HAUETAN...  
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27



**ETXEBIZITZA**

Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu.  
☎ 76 82 17.

Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6.Can.  
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurin garajea salgai.  
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000).  
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai  
☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian.  
☎ 12 12 71.

Espaloian garajea salgai  
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Artzamendin mueblekin edo mueblegabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu.  
☎ 76 14 13 (gaeuz)

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten.  
☎ 76 57 69/76 13 23.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 51.

**SALDU-EROSI**

Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gaeuz) edota 79 82 10 (egunez).

Collie txakurkumea salgai. Bi hilabete.  
☎ 76 64 83 (Xabier).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut.  
☎ 76 44 34 (Amaia)

Egurra salgai ekonomizakarako eta beheko sarako. ☎ 76 30 16.

Eskiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke.  
☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Bateria klaseak ematen dira.  
☎ 76 54 74 (Aitor).

OPEL CORSA Gsi 1.6i SS-AJ kotxea salgai.  
☎ 76 63 18.

Petrolio-zoko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatant (bat 60.000).  
☎ 76 10 34.

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai.  
☎ 76 59 47 (David).

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W.  
☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gaeuz).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai.  
☎ 76 32 51.

Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke.  
☎ 76 31 76.

**LANA**

Etxeko lanak egin edota denda baten lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu.  
☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 60 65 .

**Hildakoak**

- Benito Aperribai Madinabettia*  
abenduak 21, 65 urte
- Dolores Muruamendiaraz Madinabettia*  
abenduak 22, 74 urte
- Pedro Garitano Astigarraga*  
abenduak 23, 93 urte

**Jaiotakoak**

- Mireia Iglesias Horrillo*  
azaroak 4
- Xabier Sanchez Carasatorre*  
abenduak 16
- Uzuri Castelo Moñux*  
abenduak 17
- Leire Aranzeta Agirre*  
abenduak 17

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70







**MOTA  
 GUZTIETAKO  
 INSTALAZIOAK**

**Koldo Elizalde, 8 BERGARA**

**☎ 76 00 00**

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
 Tfnoa: (943) 76 30 57

**BERGARA  
 (Gipuzkoa)**



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO  
 GARANTIA**